

# “ZAILENA INFORMAZIOA HAUTATZEA DA”



Rocío del Castillo | Urola BHI | Batxilergoa

Rocío del Castillo IES Urolako “Burnizurekingaude” taldearen irakasle arduraduna da. Talde horrek lortu du Kosmodisea 2011-2012 Grapho Planetan Batxilergoa kategorian puntu gehien.

*Nola jaso du taldeak Ikono Planetaren aldetik jasotako saria?*

Albisteaz poz handiz jaso dute. Egin duten lehen gauza zer irabazi duten galdetzea izan da.

*Fase hau egiterakoan, zer iruditu zitzaion zailena?*

Aurreko Planetan “wikia” jorratu zuten eta, beraz, fase hau ez zaie oso zaila iruditu. Gehien kostatu zaiena atal bakoitzean jarri beharreko informazioa hautatzea izan da.

*Grapho Planeta Kosmodisea lehiaketako aurtengo edizioan txertatu den berritasuna da. Zer iruditzen zaizu fase berri hau txertatzea? Kosmodiseako beste edizioetan parte hartu baduzue, oraingo faseen programazioa beste urteetakoak baino hobekia ala okerragoak iruditu zaizkizue?* Ongi dago baina, nire ustez, askotariko ideiak jarri behar dira lanak dinamikoagoak izateko. Adibidez, “gif” animatuak non lor daitezkeen, nola txerta daitezkeen bisita-zenbatzailea, etab. Bestela, “wiki” estatiko eta errazak garatzen dituzte.

*2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?*

Ikono planetan egindako proiektuak, orokorrean, oso dibertigarriak ziren eta aukeratutako pertsonaiak oso egokiak. Ikono planeta fasea iruditu zaigu interesgarriena.

*Eta zeintzuk dira Kosmodisean parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?*

Gehien kostatzen zaiena informazioa hautatzea da. Ez dute argi zertarako diren eta nola geldituko diren ondoren, lanean islatzen direnean. Ideia hautatutakoan, talde batzuei zaila egin zaie proiektua planeta batzuetan garatzea.

*Nola egiten diozue aurre Kosmodisea 2011-2012ko datorren azken "Mito" faseari?*

Hasteko gogoz. Asko gustatu zaien planeta da. Hori landu behar den eguna asko gustatzen zaie. Ongi pasatzen dute bideo-kamerarekin grabatzen.